**2026/2027 IKASTURTEKO HARRERA JARDUNALDIA**

Ikasle hori:

Eskerrak eman nahi dizkizugu Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskola (VGIE) aukeratzeagatik ikasketak egiteko. Ziur ez zarela damutuko, eta, nahi dugu kontuan hartzea langile guztiak, administraziokoak eta zerbitzuetakoak, irakasleenak eta zuzendaritza-taldearenak gogor ari garela lanean EHUko ikastegi honetan ahalik eta gusturen egon zaitezen. VGIE zure bigarren etxea izango da datozen lau urteetan. Hemen ikasi, lagunak egin, zure irakasleekin ikasi eta zure etorkizuna prestatuko duzu.

Hori dela eta, Eskolan errazago integratzeko eta ingeniaritzako profesional baten lana bertatik bertara eta ahalik eta lasterren ezagutzeko, Harrera Jardunaldi bat antolatu dugu, lehen mailako eskolak hasi aurretik. Jardunaldi horretan, ingeniari batek enpresa batean zer egin dezakeen, zer funtzio duen eta zer gaitasun garatu behar dituen jakingo duzu. Gainera, bertatik bertara ezagutuko duzu ikastetxean nola ibili behar duzun, zer zerbitzu eskaintzen ditugun, non aurkitu informazioa eta zer baliabide dituzun eskura Eskolan eta EHUn.

Behin berriro ere ematen dizkizugu eskerrak gu aukeratzeagatik. Kontuan izan behar duzu ingeniaritzaren arlo zoragarrian sartzea erraztuko dizun ate aparta irekitzen ari zaizula. Gure ikasleak oso ongi prestatuta ateratzen dira. Horren froga dira Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskolatik ateratako ikasleek beren zerbitzuak ematen dituzten enpresa eta erakunde ugariak. Enpresa horiekin jarraitzen dugu etengabeko harremanetan, ematen dugun prestakuntza behar bezain gaurkotuta dagoela bermatzeko.

Gure desio bakarra da gogotsu has zaitezen. Ondotxo dakizu bidea ez dela erraza, baina gogoratu behar duzu gakoa hasieratik etengabe lan egitea dela. Eutsi goiari eta gogoan izan beti jo dezakezula irakasleengana edo zuzendaritza

**JORNADA DE ACOGIDA PARA EL CURSO 2026/2027**

Estimado/a estudiante:

Deseamos agradecerte que hayas elegido nuestra Escuela de Ingeniería de Vitoria-Gasteiz (EIVG), para realizar tus estudios. Seguro que no te vas a arrepentir, y queremos que tengas en cuenta que todo el personal, de administración y servicios, de profesorado y del equipo de dirección, estamos trabajando duro para que te encuentres lo más a gusto posible en este centro de la EHU. La EIVG será tu segunda casa durante los próximos cuatro años. Aquí estudiarás, harás amistades, aprenderás con tus docentes y forjarás tu futuro.

Por ello, para facilitar tu integración en la Escuela y para que conozcas de primera mano y lo antes posible en qué consiste la labor de un profesional de la ingeniería, hemos desarrollado una Jornada de Acogida, previa al comienzo de las clases de primer curso. En dicha Jornada, vas a descubrir de qué puede trabajar un/a ingeniero/a en una empresa, cuál es su función, qué competencias tiene que desarrollar. Además, conocerás de primera mano cómo tienes que moverte por el centro, qué servicios ofrecemos, dónde encontrar la información y con qué recursos cuentas en la Escuela y la EHU.

De nuevo queremos expresarte nuestro agradecimiento por habernos escogido. Ten en cuenta que se te está abriendo una puerta excelente para facilitarte el trabajo en un área apasionante como es la ingeniería. Nuestro alumnado sale perfectamente preparado, y así lo atestiguan la multitud de empresas e instituciones en las que prestan sus servicios las personas tituladas de esta Escuela de Ingeniería de Vitoria-Gasteiz; empresas con las que seguimos manteniendo un contacto permanente para asegurar que la formación que se imparte está perfectamente actualizada.

Sólo queremos que comiences con ganas, ya sabes que el camino no es fácil, pero recuerda que la clave es el trabajo continuo desde el principio. No te desanimes y ten en cuenta que siempre puedes acudir al profesorado o al equipo de dirección para

taldeko kideengana edozein orientazioz edo iradokizunez galdetzeko.

Arretaz diseinatu dugun Harrera Jardunaldi honetara joatea beharrezkoa da, zure ikasketetarako oso lagungarria izan daitekeela uste baitugu.

VGIEko zuzendaritza taldea

cualquier orientación o sugerencia que consideres oportuna.

Esta Jornada de Acogida que hemos diseñado con esmero es de asistencia obligatoria, porque consideramos que puede serte de gran ayuda para tus estudios. Muchas gracias.

El equipo de dirección de la EIVG

## Gaztelaniaz matrikulatuta bazaude

## Si estás matriculado/a en castellano

EGUNA: ***IRAILAK 4, OSTIRALA***

ORDUA: ***9:00***

LEKUA: INGENIARITZA ESKOLAKO ***ARETO NAGUSIA***

DÍA: ***VIERNES 4 DE SEPTIEMBRE***

HORA: ***9:00 H***

LUGAR: ***SALÓN DE ACTOS*** DE LA ESCUELA DE INGENIERÍA

## Euskaraz matrikulatuta bazaude

## Si estás matriculado/a en euskera

EGUNA: ***IRAILAK 4, OSTIRALA***

ORDUA: ***11:00***

LEKUA: INGENIARITZA ESKOLAKO ***ARETO NAGUSIA***

DÍA: ***VIERNES 4 DE SEPTIEMBRE***

HORA: ***11:00 H***

LUGAR: ***SALÓN DE ACTOS*** DE LA ESCUELA DE INGENIERÍA

Eskolara ate nagusitik sartu eta eskuineko korridorea hartu.
Argi eta garbi seinaleztatuta aurkituko duzu Areto Nagusia.

GARRANTZITSUA: eskolara iristen zarenean, **SARTU**. Ez geratu atean, pilaketak saihesteko. Eskerrik asko.

**NAHITAEZKOA: LDAP erabiltzailea/pasahitza ekarri (Sarbideakoaren berdina da; selektibitaterako erabili zena).**

Entra a la Escuela por la puerta principal y toma el pasillo de la derecha.
Encontrarás claramente señalizado el Salón de Actos.

IMPORTANTE: Cuando llegues a la Escuela, **ENTRA.** No te quedes en la puerta, para evitar aglomeraciones. Gracias.

**INDISPENSABLE: Traer el usuario/contraseña LDAP (es el mismo que el de Sarbidea; el que se usó para selectividad).**